KOSTUEN KONTABILITATEA 2023-ko EKAINA. TEORIA

1) Aipa ezazu kontzeptu hauek; gastuak diren ala ez edo kostuak diren ala ez. Biak (kostu eta gastu) batera badira, esan zenbateko berdinagatik edo desberdinagatik diren.

Kontzeptuak	K. Finantzarioa	K. Analitikoa
Telefonia		
Salgaien Aurrez Kalk. Gutxiketa		
Ekoizpen Arduradunaren Soldata		
Enpresako zentru bateko Makineriaren Amortizazioa		
Ez-Ohizko Gastuak		
Gastu Finantzarioak		
Sozietateen gaineko Zerga		
Lehengaien Erosketa		

2) Aipa ezazu, **ARRAZOITUZ,** kostu hauek zer diren; aldakorrak, eta/edo finkoak, eta/edo mixtoak; Zuzenak edo Zeharkakoak Sail batekiko; Zuzenak edo Zeharkakoak Ustiapen Objektuekiko (produktuak, zerbitzuak...).

Kontzeptuak	Kostu Aldakorra	Kostu Finkoa	Kostu Mixto	Zuzena Sail batentzat	Zeharkakoa Sailentzat	Zuzena Produktuarentzat	Zeharkakoa Produktuentzat
Produktuak komisioka saltzen dituen langile baten, Langile kostua							
Enpresa kokatuta dagoen lokalaren Alokairua							
Enpresako Jerentearen Soldata							
Argindar Kontsumoa (elektrizitatea)							
Sail bateko Makina baten, erabilpen araberako Amortizazioa							
Lehengaien Kontsumoa							

3) 2015-ko Apirilaren 14 Ebazpena:
¿Zeintzuk dira Kontabilitate Plan Orokorrak onartzen dituen biltegi irteeretako erizpideak? ¿Zeintzuk ez daude onartuak KPO-n, baina bai K. Analitikoan?

4) a) Aipa ezazu, aurkako "Lehengaien desbideraketa Tekniko" bat sor dezaken Barne arrazoi Iraunkor bat.

b) Aipa ezazu, aurkako "Langile kostuaren desbideraketa Ekonomiko" bat sor dezaken Barne arrazoi Iraunkor bat.

c) Aipa ezazu, aldeko "Sarreren desbideraketa Tekniko" bat sor dezaken Kanpo arrazoi Behin-behineko bat.

d) Aipa ezazu, aldeko "Ekoizpen Gastu Orokorren desbideraketa Ekonomiko" bat sor dezaken Kanpo arrazoi Iraunkor bat.

Arrazoitu erantzunak eta hurrengo ekitaldiko Standard-en ezartzeari, nola eragingo lioketen aipatu.

5) Diruzaintza Aurrekontua

KOSTUEN KONTABILITATEA 2023-ko EKAINA. PRAKTIKA

1) KOSTU HISTORIKOAK

Datuak:

Bideango Produktuen Hasierako Izakinak: 200 euro
Bideango Produktuen Bukaerako Izakinak: 300 euro
Lehengaien Hasierako Izakinak: 200 kg. (18€/kg.)
Lehengaien Erosketak: 300 kg. (20€/kg.)
Lehengaien Bukaerako Izakinak: 100 kg.
Merkaturatze Kostuak: 1.700 euro (hemendik; 1000 euro, kostu Aldakorrak dira).
Administrazio Kostuak: 1.600 euro.
Hornikuntza eta Eraldaketako, beste kostu aldakor batzuk: 1.000 euro.
Hornikuntza eta Eraldaketako, kostu Finkoak: 4.000 euro.
Hornikuntza - Eraldaketako Iharduera Normala:1.500 h. Benetazko Iharduera:1.800 h.
Benetazko Ekoizpena: 500 produktu.
Salmentak: 450 produktu (40 €/produktu).
Lehengaien Baloraketa Erizpidea: LIFO

Eskatzen da:

1. Produktu Bukatu bakoitzaren Ekoizpen Kostua: a) Direct-Cost-en bidez.
   b) Egitura Funtzional, k.Finkoen Egozpen Arrazionalen bidez.

2. Emaitza: a) Direct-Cost-en bidez.
   b) Egitura Funtzional, k.Finkoen Egozpen Arrazionalen bidez.

3. Bi egituren emaitzen konparaketa eta ausnarketa.

2) GUTXIKETAK

Datuak:

Produktu Bukatuen Hasierako Izakinak: 10 prod. (20 €/prod.)
Ekitaldiko Ekoizpena: 300 prod. (21€/prod.)
Salmentak: 280 prod. (30€/prod.)
Prod. Bukatuen Aurrez Kalk. Gutxiketa: 12 produktu.
Benetazko Bukaerako Izakinak: 20 produktu.
Biltegietako Irteera Erizpidea: FIFO

Eskatzen da:

1. Aurrez kalk. Gutxiketak, Benetazkoak eta Gerora kalk. Gutxiketak; bai unitate fisikoetan eta dirutan.
2. Produktu bukatuen Bukaerako Izakinak.

3) STANDARD-ak

"Ekoizpen Gastu Orokor"-ei, dagozkien, **Aurrikusitako Datuak:**

Standard Físikoa: 10 h./prod. Standard Ekonomikoa: 20€/h.
Aurrikusitako Ekoizpena: 1.000 produktu.
Aurrikusitako Kostu Finkoa: 50.000 euro.
Aurrikusitako Salmentak: 1.000 prod. (250 euro/prod.).

Benetazko Datuak:
Benetazko Ekoizpena: 900 prod. Bukatu eta 100 Bideango (%60an bukatuak daudenak)
Bideango Produktuen Hasierako Izakinak: 50 prod. (%20an bukatuak daudenak).
"Ekoizpen Gastu Orokor"-en Benetazko Kostua: 180.000 €.
Benetan Lan egindako orduak: 8.900 h.
Benetazko Salmentak: 1.100 prod. (240 euro/prod.)

Eskatzen da:

1. Ekoizpen Gastu Orokorren, desbideraketa Globala, Teknikoa, Ekonomikoa, Aurrekontuetan eta Iharduerarena; Kalkulatu **eta ADIERAZI desbideraketa bakoitzean gertatu dena.**
   AZALPENIK GABE: KALKULO HUTSAK, EZ DU EZER BALIO
2. Desbideraketa Teknikoaren garrantzi erlatiboa aipatu.
3. Sarreren desbideraketa global, ekonomiko eta teknikoa; Kalkulatu **eta ADIERAZI desbideraketa bakoitzean gertatu dena.**
   AZALPENIK GABE: KALKULO HUTSAK, EZ DU EZER BALIO
4. Emaitzen Taula.

4) AURREKONTUAK

Datuak: Aurrikusitako Salmentak: 100 prod. (200€/prod.); Prod. Bukatuen Hasierako Izakinak: 20 prod.; Aurrikusitako Bukaerako Izakinak: Aurrikusitako Salmenten %5a.

Lehengaien Hasierako Izakinak: 20 kg.; Produktu bat egiteko, 2 kg. Lehengai behar dira.
Lehengaien Aurrikusitako Bukaerako Izakinak: Aurrikusitako kontsumoren % 10a.
Lehengaien Aurrikusitako Prezioa: 12€/kg.

Eskatzen da:

1. Salmenten Aurrekontua.
2. Ekoizpen programa.
3. Lehengai kontsumoaren programa.
4. Erosketen Aurrekontua.